

{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

Su txikian berotzen egongo al da euskal iraultza?

Azken hamarkadetan agertoki politiko bi-
zi-bizia izan da Euskal Herria. Kanpoko
ispilutik begiratuta zirrargarri agertu
da beti, Burgoseko Prozesutik Aieteko
Konferentziara bitartean muga litekeen
denbora puska luzean. 1970. urte harta-
rako, maiatzean mende erdia egingo duen 1968ko
Iraultza zimeldua zen nabarmen; eta 2011n, Mende-
balde honek –noizbehinkako krisialdi ekonomikoak
eta betiko gerrak gorabehera– nahiko esparru segurua
zirudien oraindik. Egonkortasuna ikur zuen inguru
zabal honetan, beraz, kontrolik gabeko aldagaia izan
da herri txiki hau 41 urte horietan. Hortik hona, or-
dea, hemengo zein kanpoko bilakaerak kontrako no-
rabidean joan dira; apaldu da Euskal Herria –hainba-
ten ustez, lokartu– eta astindu –edo erotu– bere
ingurune politikoa.

Gas leherketen antzera
ugaldu dira eztanda politi-
koak Euskal Herritik gertu
samar, askotan elkar kutsa-
tuz. Estatuari begiratzen ba-
diogu, Arabiar Udaberria
delakoari segika, gau batean
irudi zuen Madrilgo Puerta
del Sol enparantzatik abia-
tuta herriak espainiar ze-
ruak hartuko zituela, baina

ez, benetako matxinada Katalunia aldean egosten ha-
sia zen, eta, kontraerasoan-edo, Ciudadanosen eskuin
prefabrikatuak jaun eta jabe dirudi gaur. Baina auskalo
bihar edo etzi. Nazioarteari so jarrita, Eskozia indepen-
dente izateko aukeratik Brexit-era (ia kontrakora) pasa
gara ia ohartu gabe, eta horren arrastoan iritsi zaigu
Donald Trump. Baina batek daki laster boto-emaile
berdinek Oprah Winfrey bati, esaterako, pasako ote
dioten lekukoa...

Sare sozialen eraginarekin lotu dira zirti-zarta horiek
guztiak. Euskal Herrian ere badira sare sozialak, baina
sendoago joan dira gauzak, astunago ez esateagatik.
Egia da tarte honetan inoizko mobilizazio politiko
handienak gertatu direla, baina egia da ere Iñigo Urku-
llu bezalako kudeatzaile arrunt bat nagusitu dela hau-
tetsontzietan (ez da Trump, ez eta Puigdemont ere pre-

seski). Nafarroan gehiengoa errotik aldatu da, baina al-
daketa hori bera lasai eta espero ez zen patxadaz gara-
tzen ari da. Bilduk kolpea jo zuen hauteskundeetan lu-
rralde osoan, baina gero bere horretara itzuli ziren
bakoitzaren indarrak. Hori guztia ikusita, esan daiteke
gas egoera nabarmen den honetan, ohiko euskal soli-
dotasunak agintzen duela oraindik gurean. Askapen
prozesua azkar lezakeen gertaera berezi baten espero-
an ibili den edonork (*teoría del acontecimiento* delakoa
eskura dago beti) ez du aurkitzerik izan.

Joko eremu honetan, hala ere, espero baino motela-
go eta gorabehera gutxiagorekin, inoiz ikusi gabeko
heldutasuna lortzen joan da hainbat kontu. Gatazka-
ren ondorioen alorrean, presoek eskubideen alde su
txikian emeki-emeki egosten ari den adostasuna aza-
leratzen hasia da, eta azkeneko bi hilabete eskasotan

Egonkortasun esparru batean lurralde
gatazkatsua izatetik, gas leherketen
artean urrats sendoak ematen dituen
herria izatera pasa da Euskal Herria

torturaren aitortza ofizialak egin duen urratsa ikaraga-
rria da. Asko eta luze erein ondoren, uzta garaia-
ren gertutasuna iradokitzen duen usaina dakarte
negu bukaerako haizeteok arlo honetara.

Konponbide politikoaren esparruari dagokionez ere,
orain arte erakutsi gabeko heldutasuna adierazten du-
te Gasteizko Legebiltzarreko Autogobernu Lantaldea-
ren mahaira ateratako proposamenek. Lehenengo kol-
pean behintzat, bistan da ekarpen nagusiak arerioa
etsai bilakatzeko asmoz ez direla diseinatu, arerioa bi-
delagun bihurtzen ahalegintzeko baizik. Argi adierazi
du Arnaldo Otegi: akordioa lortuko ez balitz, ez da Es-
tatu espainolaren erruagatik izango, euskal indar poli-
tikoen gaitasun ezagatik baizik. Su txikiak ez du txin-
partarik ateratzen, ez du zalapartarik sortzen, baina,
momentuz, giroa epeltzen du. •